



*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**7**

**Zer berri? Zaharrak berri!**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 4. maila)

TXANELA 4:  
LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO ZAZPIGARREN UNITATE  
DIDAKTIKOAREN GIDAREN ZIRRIBORROA

**“ZER BERRI? ZAHARRAK BERRI!”**

Aurreko unitateetan landutako gaiei jarraipena emanez, hemen duzu 7. unitate didaktikoari dagokion gida.

Unitate honetan ez da eduki berririk lantzen, ziklo honetan landutakoa berrikusi egiten da, eta nahi izanez gero, proposatutako hainbat jarduera alderdi jakin batzuei behatzeko ere erabil daitezke. Gogoratu ebaluatzeko diren hainbat eduki aspaldian landutakoak direla eta horiek aldeztu aurretik errepetatu behar direla.

**Unitateko proiektu nagusia:** Karpeta bat osatzea bi urte hauetan egindakoa berrikusiz, egingo diren lanak bertan gordetzeko. Bukatzean, karpeta norbaiti oparitutako diogu.

Unitatearen sekuentzia eta arloz-arlo berrikusten diren edukiak zein diren jakiteko, aldeztu aurretik irakur ezazue ikasnorabidea.

**EUSKAL DIMENTSIOA**

Hizkuntza eta literatura	“Eblisen morroia” ipuin literarioa: <i>J.M. Olaizola “Txiliku”</i> . Igarkizunak: <i>J.M. Olaizola “Txiliku” eta Joxan Ormazabal</i> Bertsoak: <i>Mikel Mendizabal</i>
Musika eta gorputz motrizitatea	Unitateko abestia: <i>Joxan Ormazabal eta Imanol Urbieta</i> .
Ingurumena	Eskola oporrak Euskal Herriko iparraldean eta hegoaldean. Elkartasun jolasak.

## 2. ZIKLO AMAIERAKO HIZKUNTZAKO HELBURUEN LABURPENA

**Oharra:** Ondorengo informazioa HIZKUNTZA arloari dagozkion helburu eta ebaluatzeko irizpideei dagokiona da. Laburpena zuen lanerako egokia bada ere, informazioa hobeto ulertzeko eskura ezazue honi dagokion sareko dokumentu osoa eta aldera ezazue.

Ziklo amaierako HIZKUNTZAKO helburuak bi irizpideren arabera deskribatu dira:

- **Gaitasun nagusiekin** erlazionatuz:
  - A. Ulermena
    - A1. Entzutezko ulermena
    - A2. Idatziaren ulermena
  - B. Adierazpena
    - B1. Ahozko adierazpena
    - B2. Idatzizko adierazpena
  - C. Hizkuntzari buruzko hausnarketa
- **Eduki multzoekin** erlazionatuz:
  - Ahozko komunikazioa
  - Komunikazio idatzia
  - Hizkuntzari buruzko hausnarketa
  - Hizkuntzaren gizarte dimentsioa
  - Literatura

<b>2. ZIKLO AMAIERAKO HIZKUNTZA ARLOKO HELBURUAK</b>	<b>GAITASUN NAGUSIAK</b>	<b>EBAL IRIZPID</b>	<b>JARDUERAK 4. MAILA, 7. UNITATEA</b>
--	------------------------------	-------------------------	--

<b>AHOZKO KOMUNIKAZIOA</b>			
<b>1. Ahozko azalpenen funtsezko ideiak identifikatzea.</b>	<b>A1</b>	<b>1.1.</b>	(Irakaslearen azalpenak), 29
		<b>1.2.</b>	(Irakaslearen azalpenak), 29
		<b>1.3.</b>	(Irakaslearen azalpenak), 29
		<b>1.4.</b>	(Irakaslearen azalpenak), 29
		<b>1.5.</b>	(Irakaslearen azalpenak), 29
<b>2. Ahozko testuetan informazioak aukeratzea.</b>	<b>A1</b>	<b>2.1.</b>	(Irakaslearen azalpenak)
		<b>2.2.</b>	(Irakaslearen azalpenak), 29
		<b>2.3.</b>	(Irakaslearen azalpenak), 29
<b>3. Elkarrizketa eta eztabaidetan, ideiak azaltzea, arrazoitzea eta besteekin alderatzea.</b>	<b>A1-B1</b>	<b>3.1.</b>	1, 2, 17, 18, 30
		<b>3.2.</b>	1, 2, 8, 10, 11, 17, 18, 30
		<b>3.3.</b>	1, 2, 8, 10, 11
		<b>3.4.</b>	1, 2, 3, 8, 10, 11, 17, 18, 30
		<b>3.5.</b>	1, 2, 3, 17, 30
		<b>3.6.</b>	1, 2, 17
		<b>3.7.</b>	1, 2, 8, 10, 11, 17, 18, 30
		<b>3.8.</b>	1, 2, 8, 10, 11, 17, 18, 30
<b>4. Eguneroko bizitzako egoera desberdinetan elkarrizketan aritzea.</b>	<b>A1-B1</b>	<b>4.1.</b>	1, 2, 8, 10, 11, 15, 17, 18, 30
		<b>4.2.</b>	1, 2, 8, 10, 11, 15, 17, 18, 30
		<b>4.3.</b>	1, 2, 15, 17, 18, 30
<b>5. Ahozko aurkezpen argi eta egituratuak egitea.</b>	<b>B1</b>	<b>5.1.</b>	10, 20
		<b>5.2.</b>	10, 20
		<b>5.3.</b>	2, 8, 10, 11, 14, 20, 22
		<b>5.4.</b>	2, 8, 10, 11, 14, 20, 22
		<b>5.5.</b>	2, 8, 10, 11, 14, 20, 22

<b>IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA</b>			
6. Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak deskodetzea.	A2	6.1.	3, 4
		6.2.	3, 4
		6.3.	3, 4
		6.4.	3, 4
7. Testu idatzi sinpleen esanahi globala inferitzea.	A2	7.1.	2, 3, 4, 5, 13
		7.2.	5,
		7.3.	2, 3, 5
		7.4.	2
		7.5.	17
		7.6.	2, 3, 4, 5, 13
8. Informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea.	A2	8.1.	3, 5, 10, 11, 13
		8.2.	3, 5, 10, 11, 13
		8.3.	
9. Testu idatzi sinpleen esanahi globala sintetizatzea.	A2-B2	9.1.	10
		9.2.	10
		9.3.	19
10. Testu idatziak planifikatzea.	B2	10.1.	32
		10.2.	32
		10.3.	32
		10.4.	32
11. Testu idatziak sortzea.	B2	11.1.	12, 16, 18, 32
		11.2.	12, 16, 18, 32
		11.3.	16, 18, 32
		11.4.	16, 18, 32
		11.5.	12, 16, 18, 32
		11.6.	12, 16, 18, 32
		11.7.	18, 32

<b>HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA</b>			
12. Hizkuntz elementuen ezaugarri eta funtzionamenduari buruzko oinarriko ezagutzak erabiltzea.	C	12.1.	CDR (Ikusi oharrak) 11, 12, 16
		12.2.	CDR (Ikusi oharrak) 11, 12, 16
		12.3.	CDR (Ikusi oharrak) 11, 12, 16
		12.4.	CDR (Ikusi oharrak) 11, 12, 16
		12.5.	CDR (Ikusi oharrak) 11, 12, 16

<b>HIZKUNTZAREN GIZARTE DIMENTSIOA</b>			
13. Inguruko hizkuntz errealitatearen ezaugarri nagusi batzuez ohartzea.	C	13.1.	(Ikusi oharrak)
		13.2.	(Ikusi oharrak)
14. Euskara ohiko komunikazio eremu eta egoeretan erabiltzea.	C-B	14.1.	(Ikusi oharrak)
		14.2.	(Ikusi oharrak)

<b>LITERATURA</b>			
15. Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea.	A1-A2-B1	15.1.	4, 12, 28
		15.2.	5
		15.3.	27
16. Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea.	A1-A2	16.1.	15
		16.2.	15

## **EBALUAZIOARI BURUZKO HAINBAT OHAR**

### **Hizkuntzari buruzko hausnarketa**

*Materiala: CDR-a*

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Ebaluazioa:*

*Hizkuntzaren ebaluazioa:*

• <i>Gaitasun nagusiak</i>	<i>Hausnarketa</i>
• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>12 (12.1, 12.2, 12.3, 12.4, 12.5)</i>

Hizkuntzako 12. helburua hizkuntza-sistemaren ezagutzari eta ezagutza horren erabilerari dagokiona da. Hizkuntza sistemaren ezagutza, besteak beste, testuen sortze eta berrikuste prozesuetan beha dezakegu. Beraz, unitate honetan eskaintzen diren testu ekoizpen jarduerak erabil ditzakegu 12. helburuari dagokion behaketa egiteko. Honetaz gain, CDRko hizkuntza jarduerak ere balia ditzakegu irizpideen behaketa zehatzagoa egiteko.

### **Hizkuntzaren gizarte dimentsioari buruzko hausnarketa**

*Ebaluazioa:*

*Hizkuntza:*

• <i>Gaitasun nagusiak</i>	<i>Hausnarketa</i>
• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>13 (13.1, 13.2)</i> <i>14 (14.1, 14.2)</i>

Helburu hauen baloraziorako jarduera jakinik eskaintzen ez bada ere, Argitxo pertsonaiaren aitzakia (10, 13 eta 21. orrialdeetan) erabil daiteke hizkuntzen inguruko eta, bereziki, euskararen erabilerari buruzko ikasleen jarrerak behatzeko. Hala ere, gelako eguneroko jardunean eduki horien aurrean ikasleek erakusten duten jarreraren behaketan oinarritu behar da helburu hauen ebaluazioa.

## **IKT jarduerak**

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- IKASYS Ikastolen Elkartek garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduera sorta handia eskaintzen du.
- Txanela webgunea ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara-Ingurumena-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- Ostadar webgunea ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduera zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

### **Virtusbooks plataforma**

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkartek eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. Virtusbooks (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduera ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 4

IKASLEAREN LIBURUA - 7. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0		Baliabideen taula	3	247
4		<i>Ikusi eta ikasi</i>	6	250
28		<i>Festa giro</i>	35	279
29		San Joan sua	36	280
33		<i>Goza ditzagun merituak (bertsoa)</i>	39	283

# JARDUEREN ANALISIA

## 1. Azalaren behaketa eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

*Ebaluazioa:*

*Hizkuntza:*

• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ahozko adierazpena</i>
• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	3 (3.1, 3.2, 3.3, 3.4, 3.5, 3.6, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2, 4.3)

Aurreikuspen-estrategiak landu eta haurrak motibatuzko asmoz, liburuaren azalaren behaketa eta hari buruzko elkarrizketa bultzatuko ditugu. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, elementu horiek elkarren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragartzeari bidea emanez. Elkarrizketa horrek, hizkuntzako 3. eta 4. helburuei dagozkien hainbat irizpideri behatzeko aukera emango digu (*elkarrizketan aritzea eta norberaren ideiak azaltzea, arrazoitzea eta besteenekin alderatzea*).

Hasteko, izenburuari erreparatuko diogu:

*–Zer adierazi nahi digu izenburuak?*

Esanahia argitzen saiatuko gara denon artean. Ondoren, irudiari erreparatuko diogu, eta bertan dauden elementuak euren artean izan dezaketen erlazioez jabetzeko hauei buruz dakigun guztia aipatuko dugu. Azkenik, gaiaren inguruko galdera egingo diegu:

*–Zer uste duzue landuko dugula gai honetan?*

*–Zuen ustez ezer berririk landuko al dugu gai honetan?*

*–Zergatik?*

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

**Oharra:** Unitate osoan zehar hainbat elkarrizketa sortuko dira, horien artean zenbait talde txikietan bideratzekoak; beraz, komenigarria litzateke talde horiek finkoak izatea, baina bozeramaile-lana egingo duen ikaslea txandakatuz joatea. Bozeramaile horrek talde handiari adieraziko dio bere taldean hitz egindakoa. Irakasleak hainbat aukera izango du talde txikian ematen diren elkarreraginak behatzeko, eta baita ikasle bakoitzak bozeramaile lanetan egindako ahozko adierazpena behatzeko ere.

Elkarrizketan aritzearekin erlazionatutako ebaluazio-irizpideen inguruko oharrak biltzeko eta ikasle bakoitzaren behaketa errazteko, lehendik ere aurkeztutako fitxa hau (hurrengo orrialdean duzuna) erabil dezake irakasleak:

*–Zeri buruzkoa uste duzu izango dela unitate hau? Zergatik?*



**TALDEKO ELKARRIZKETAK**  
SOLASKIDEEN PARTE-HARTZEA BEHATU ETA BALORATZEKO FITXA

BEHATUTAKO IKASLEA: .....

<b>Parte-hartzea prestatu du?</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>OHARRAK:</b>
■Gaiari buruzko informazioa lortu du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Iturri bat baino gehiagotatik lortu du informazioa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Lortutako informazioa gogoratzeko idatziz ekarri du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Bere iritziak idatziz prestatzen ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	

BALORAZIOA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi

<b>Parte hartu du?</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>OHARRAK:</b>
■Besteen hitzak arretaz entzun ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Lortu duen informazioa azaldu du, hori egitea tokatzen zenean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Bere iritzia azaldu du, hori egitea tokatzen zenean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Aurrez beste batek esandakoari buruzko bere desadostasuna edo adostasuna azaldu du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Iritziak arrazoitu edo justifikatu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Moderatzaileak behartu edo eskatu dionean bakarrik hitz egin du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Berak horrela nahi zuelako, bitan baino gehiagotan hartu du hitza.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Beste norbaitek esandakoari buruzko argibide gehiago eskatu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	

BALORAZIOA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi

<b>Elkarrizketarako arauak bete ditu?</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>OHARRAK:</b>
■Besteei hitz egiten utzi die, hizketa-txanda eten edo oztopatu gabe.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Hitza modu egokian eskatu dio moderatzaileari (eskua altxatuz edo beste keinu batez, baina besteen hizketaaldia oztopatu gabe eta arreta galdu gabe).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Moderatzailearen baimenarekin bakarrik hitz egin du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Besteek esandakoak (ideiak, iritziak...) errespetatu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Besteen adierazpidea (hitz egiteko modua, keinuak...) errespetatu du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	

BALORAZIOA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi

<b>Egoki hitz egin du?</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>	<b>OHARRAK:</b>
■Gaiarekin zerkusia duten informazioak eta iritziak bakarrik azaldu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Informazioak eta iritziak modu ulergarrian adierazi ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Besteek ondo entzuteko moduan, eta argi eta garbi ahoskatuz hitz egin du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Hizkuntza zuzen erabiltzen ahalegindu da eta hitz egiterakoan egindako akats batzuk zuzendu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Esan duen zerbait ez dela ondo ulertu iruditu bazaio, saiatu da beste era batera adierazten.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Keinu, postura eta mugimendu egokiak erabili ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	

BALORAZIOA: oso ondo/asko nahikoa eskas antzean gaizki/gutxi

## 2. Komikia

Lan egiteko era: *Bakarka - Talde txikian - Talde handian*

Materiala: *Unitate didaktikoaren azala*

Ebaluazioa:

Hizkuntza:

• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Idatziaren ulermena</i> <i>Ahozko adierazpena</i>
• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	7 ( 7.1, 7.3, 7.4, 7.6 ) 3 (3.1, 3.2, 3.3, 3.4,3.5, 3.6, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2, 4.3) 5 (5.3, 5.4, 5.5)

Komiki honen lanketa bi helbururekin egingo dugu: bata, unitateari sarrera eman eta gaian kokatzea, eta, bestea, komikiak irekitzen dituen hizpideak aprobetxatuz, ikasleek hizkuntza erabiltzeko duten erraztasuna, aberastasuna eta zuzentasuna behatzea.

Hasteko, tartetxo bat emango diegu ikasleei komikia bakarka irakur dezaten. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun; beraz, eman iezaiezue behar beste denbora komikia sakonki irakur dezaten, eta arretaz beha diezaioten.

Testu idatzien ulermen orokorrari dagozkion irizpide batzuk behatzeko komikiaren bakarkako irakurketaren ondoren, hor beheko galdera-sorta, folio batean jarri eta ikasle bakoitzak idatziz erantzutea proposatzen dizuegu.

Izena: ..... Data: .....

- Ondoko hiru esaldietatik, zeinek adierazten du ondoen zer den komikian gertatzen den gauzarik garrantzitsuena?
  - A Martinek bere egunerokoa aurkitu du eta azken bi urteetan egindakoa gogoratu du.
  - B Martinek bere lan eta bizitoki aldaketaren berri eman die bere lagunei.
  - C Mei Li eta Xabier oporretako planak egiten ari dira.
- Adieraz ezazu hurrengo esaldietatik zein diren komikian azaltzen direnak eta zein ez.
  - BAI EZ Martin Ttonttorpetik alde egiteko prestaketak egiten ari da.
  - BAI EZ Mei Li, Xabier eta Maider, Martin eta Kloren etxera joan dira.
  - BAI EZ Kleok elkarrekin askaltzera gonbidatu ditu neska-mutilak.
  - BAI EZ Oporretarako eta datorren urterako asmoez hitz egin dute.
  - BAI EZ Xarpa eta bere kumetxoekin zer egin eztabaidatu dute.
  - BAI EZ Martinek datozkion aldaketen berri eman die neska-mutilei.
  - BAI EZ Xabier eta Mei Lik ez dute gogo onez hartu Martinen alde egitearen berria.
  - BAI EZ San Joan bezperako sua prestatu dute Kleoren etxe atarian.
- Aukera ezazu ondorengo hitz eta esaldi bakoitzari komikian dagokion esanahia.

**Ez al zizun berria aurreratu?**

- a. Aurreratu duen diruarekin opariren bat erosi ote digu, bada?
- b. Berria beranduago emango digula esan al zizun?
- c. Ez al zizun esan zein den berria?

**Martiin! Erdu!**

- a. Ezkuta zaitetz, Martin, laster etorriko dira eta!
- b. Etorri, Martin!
- c. Iritsi dira, Martin!

**Ekinez gero, ez da hainbesterako**

- a. Saiatzen bazara, ez da hain zaila.
- b. Saiatuz gero, ezin da lortu.
- c. Hainbeste lan egitea ez da alferrikakoa izango.

- *Martin* izena *i* bakar batekin idazten da, baina komikian horrela ageri da:

**Martiin!** Zer esan nahi du horrek?

- a. Kleok oihu eginez deitu diola Martini.
- b. Martin kantuan ari dela.
- c. Kleo Martinen izena irakurtzen ari dela esku artean duen liburuan.

- Bosgarren binetan Kleok bi aurpegi ditu. Zer adierazi nahi da horrekin?

- a. Ezusteko handia hartu duela neska-mutilak iristen ikustea.
- b. Beroaren eraginez zorabiatuak dagoela.
- c. Hitz batzuk neska-mutilei zuzendu dizkiela eta besteak, berriz, Martini.

Ondoren, hizketa-gai izango duten galdera sorta emango diegu, galdera horien inguruan eta bakarka hausnar dezaten:

–Zer adierazi nahi du “Berriak berri” izenburuak?

–Zein da komiki honen gaia?

–Zein da komikiko berria?

–*Mei Li* eta *Xabier* aurten ez doaz udalekuetara, *Maid*er, berriz bai. Nola uste duzu sentituko dela *Maid*er? Zergatik?

–Nola sentituko dira *Mei Li* eta *Xabier*? Zergatik?

–Oporrak ondo pasa al daitezke norberaren herrian, beste inora joan gabe? Zer egin daiteke horrelakoetan oporrak ondo-ondo aprobetxatzeko? Konta ezazu zure esperientzia.

–*Maid*er datorren urtean DBH-ra doa. Nola uste duzu sentituko dela? Zergatik? Nola dakizu? Zuk ba al duzu gogorik DBH-ra joateko? Zergatik?

–Gure lagunak jasotako berria (*Martin*, *lana dela eta*, *Ttonttorpetik badoala*, *alegia*), berri txarra al da? Zergatik? Denentzat al da txarra?

–Gauza guztiek dute alde ona eta txarra, aipa itzazu pertsonaietako bakoitzarentzat (*Xarpa*, *Morgan*, *Kleo*, *Maid*er, *Xabier*, *Mei Li* eta baita *Martin* ere) Martinek alde egiteak izan ditzakeen alde onak eta txarrak.

–Nola uste duzu sentitzen dela *Martin*, badoalako? Eta gure lagunak? Zu nola sentituko zinateke hauetariko bakoitza bazina? Inoiz gertatu al zaizu antzeko egoeraren bat bizi behar izana? Konta ezazu egoera eta baita nola sentitu zinen ere.

*-Badirudi San Joan bezperan egingo diotela Martini agurra. Zer uste duzu antolatuko dutela edo nola uste duzu ospatuko dutela agur hori? Iragar ezazu zer izango den ospakizun hori!*

Elkarrizketa bukatzean, denbora apur bat emango diegu ikasleei ondorengo gaiaren inguruan hausnartzeko, eta ohar batzuk hartzeko gero esan beharreko ideiak ez ahazteko:

- Hizketarako gai luzea, agortezina: oporrak.*
- Zer egiteko asmoa duzu oporretan? Nora joango zara? Zenbat denboratarako? Norekin joango zara? ...?*

Gero, elkarrizketa sortuko dute, esan bezala, talde txikietan. Irakaslea, bitartean, talde batetik bestera ibil daiteke talde elkarrizketan ikasleen behaketa egiten eta datuak hartzen.

Talde elkarrizketa bukatzean, talde bakoitzeko kide batek gela osoari adieraziko dizkio hitz egindakoak. Irakasleak bozeramaleen ahozko adierazpenari dagozkien hainbat irizpide behatu ditzake, nahi izanez gero (5.5 irizpidea).

### **3. Egunerokoa. Gogora ekartzeko**

*Lan egiteko era: Bakarka - Talde txikian - Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

*Hizkuntzaren ebaluazioa:*

<i>• Gaitasun nagusia</i>	<i>Idatziaren ulermena</i>
<i>• Helburuak eta irizpideak</i>	<i>3 (3.4, 3.5) 6 (6.1, 6.2, 6.3, 6.4) 7 (7.1, 7.3, 7.6) 8 (8.1, 8.2,)</i>

Martinen eguneroko orrialde batzuk aitzakiatzat hartuta, azken bi ikasturte hauetako momentu batzuk gogora ekarriko ditugu. Orrialdetxo hauetako bakoitza, egun ezberdinean idatzitakoa dela suposatzen da eta bertan guk landutako gai jakin batzuei buruz hitz egiten da, ez modu esplizituan, baina bai iradokizun ugari luzatuz.

Jarduera honen bidez hainbat gauza ebaluatuko ditugu: idatziaren ulermena, inferentziak egiteko gaitasuna eta irakurritakoa erlazionatzeko gaitasuna, landutako unitateekin, proiektuarekin edota gaiekin.

Isilean egindako lehenengo irakurketa batean, ikasle bakoitzak pasarte guztiak irakur ditzala. Ondoren, banan-bana aztertuko ditugupasarte horiek: berriro irakurriko dugu lehenengoa, baina oraingo honetan ozenki (6. helburua, irakur teknikari dagokiona), eta, gero, pasarteak gogorarazten digunaren inguruan hitz egingo dugu. Elkarrizketa sortzen eta bizkortzen saiatuko da irakaslea, eta ikasleei galdetu zein gaiekin erlazionatu duten pasarte hori. Eskatu erantzunak ahoz argudiatzeko eta azalpen zehatzagoak emateko (3.4 eta 3.5. irizpideak). Lehenengo pasartearekin amaitutakoan, horrela egingez jarraituko dugu beste guztiekin ere.

Elkarrizketaren aurretik, ondorengo galdetegia idatziz osatzeko ere eska geniezaioke ikasle bakoitzari. Horrela, aukera bat gehiago izango dugu testu idatzi sinpleen ulermen maila behatzeko (7 eta 8. helburuak).

Izena: ..... Data: .....

- Adieraz ezazu, hitz gutxitan, Martinen egunerokoaren pasarte bakoitzaren eduki nagusia.

**1. PASARTEA:** Zertaz ari da? Zein da gaia?

- a. Mei Li eta Xabierren kirolzaletasuna
- b. Mei Li eta Xabierrekin izandako elkarrizketa
- c. Kultur etxean izan den hitzaldia

Zer kontatzen du? .....

.....  
.....  
.....

Zein gai edo proiektuekin erlazionatzen duzu? Zergatik? .....

.....  
.....  
.....

Eredu horri jarraituz osa daitezke gainontzeko pasarteei buruzko galdetegiak. Lan hori errazteko, hona hemen pasarte bakoitzeko gaia adierazteko erabil daitezkeen esaldiak:

2. pasarte: Mei Li eta Xabierrek eskainitako arreta edo zainketa.
3. pasarte: Gustuko irakurraldia.
4. pasarte: Liburu eta paperen txukunketa.
5. pasarte: Ipuin maratoirako gonbidapena.
6. pasarte: Xabierren kezkak.

Lagungarri izan daiteke bi urteotako unitateen azalak eta bestelako materialak (proiektuen argazkiak, horma-irudiak, ekoizpenak...) begi bistan izatea, erlazioak egin ahal izateko, eta poliki-poliki landutako gaiak eta proiektuak gogora ekartzen hasteko.

Bukatzean, nahi izanez gero, talde elkarrizketa sortuko dugu, irakurritakoaren inguruan hitz egiteko.

#### 4. Kanta-kantari: Ikusi eta ikasi

*Lan egiteko era: Bakarka - Talde txikian*

*Materiala: Liburua, 6. or.; CDa, 32 . pista.*

*Ebaluazioa:*

*Hizkuntza:*

• Gaitasun nagusia	Idatziaren ulermena
• Helburuak eta irizpideak	6 (6.1, 6.2, 6.3, 6.4) 7 (7.1, 7.6) 15 (15.1)

Tarte bat emango diegu ikasleei abestiaren letra irakurri eta, letra aurrean dutela, hor beheko galdera-sortari erantzuteko. Ondoren, lana bukatutakoan, CDa jarriko dugu martzan, abestia entzun eta haren hitzak irakurriz, kanta-kantari gozatu.

**Oharra.** Abesti hori, unitatean zehar erreparatzea proposatzen diren beste hainbat abesti, olerki eta bertsoekin batera, buruz ikasi eta errezitatzeke erabil daiteke. Horrela, hizkuntzako 15. helburuari dagokion 15.1 irizpideari behatuko diogu.

Izena: ..... Data: .....

Ikaslearen liburuko 6. orrialdeko testua irakurri ondoren, eta testua aurrean duzula, erantzun iezaiezu honako galdera hauei.

- Abestiaren izenburua eta errepika edo leloa zeri buruz ari dira?
  - a. Ikusi eta ikasi behar dugun guztiaz.
  - b. Orain arte ikusi eta ikasi dugunaz.
  - c. Txanelako pertsonaiek oporretan ikusi eta ikasiko dutenaz.
- Zein da ahapaldi edo estrofa bakoitzaren gai nagusia? Lotu estrofa bakoitza dagokion gaiarekin.

- 1. estrofa** Ohitura osasungarriak  
Munduko kontinenteak
- 2. estrofa** Litxarrerien kalteak  
Oporrak
- 3. estrofa** Munduko herri eta kulturak  
Ikasturtearen agurra

- Azal ezazu zeure hitzekin, labur-labur, ahapaldi edo estrofa bakoitzak diona.

1. estrofa

.....  
.....  
.....  
.....

2. estrofa

.....  
.....  
.....  
.....

3. estrofa

.....  
.....  
.....  
.....

- Zein da abesti honen funtzioa unitate honetan?
  - a. Osasuntsu bizitzeko aholkuak behin eta berriz abestuz, ondo ikastea.
  - b. Oporretan ere ikasten jarraitu behar dugula gogoraraztea.
  - c. Ikasitakoa gogora ekartzen laguntzea eta ikasturteari agur esatea.

## 5. Ipuina: Eblisen morroia

Lan egiteko era: Bakarka - Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak, 135., 136., 137., 138 eta 139. or.

Ebaluazioa:

Hizkuntza:

• Gaitasun nagusia	Idatziaren ulermena
• Helburuak eta irizpideak	7 (7.1, 7.2, 7.3, 7.6) 8 (8.1, 8.2) 15 (15.2)

Ipuin hau, edukiari dagokionez ikasturtean zehar ikusitako hainbat ideia eta eduki gogorarazteko pentsatua dago. Baina horretaz gain, ikasleen ulermen maila behatzeko ere erabil dezakegu. Horretarako, ikasleei bakarka testu osoa irakurtzeko agindu ondoren, hemen beheko galdetegi hau emango diegu erantzun dezaten, denbora nahikoarekin eta testuan egin nahi dituzten kontsultak egin ondoren.

Izena: ..... Data: .....

### EBLISEN MORROIA

- Bilatu testuan eta idatzi hemen behean istorioko pertsonaiak deskribatzeko erabili diren bina adjektibo edo hitz.  
*Txanelako* egileak: 1. .... 2. ....  
Jeinua: 1. .... 2. ....  
Morroia: 1. .... 2. ....
- Ondorengo zein esaldi dagokio istorio honetako arazoari, hau da, ekintza guztiei hasiera ematen dien lehenengo ekintza nagusiari.
  - Eblis jeinuak bere morroia bidali zien *Txanelako* egileei hauen mandatuak bete zitzen.
  - Txanela* ikasliburuen egileek sorginkeria bat egitea erabaki zuten neska-mutilek gehiago ikas zezaten.
  - Egileak ez ziren konforme geratu Jokin Galtzagorrik gaien oroigarri bezala ekarritako gauzeekin.
- “Zuen esanetara nago” esan zien jeinuak liburu-egileei. Zer esan nahi zuen?
  - Agindutakoa egiteko prest zegoela.
  - Egileek esandako guztia entzun zuela.
  - Ez zuela egun guztia egileen txikikeriei erantzuna emateko.
- “Jeinuak biboteak kiribildu zituen, ponpoxo-ponpoxo eta oilarkeriaz beteta”. Nola zegoen jeinua?
  - Pozik, biboteei oilarren gandorraren itxura ematea lortu zuelako.
  - Garagardo gehiegi edan izan balu bezala.
  - Harro-harro eginda.
- “Hitzak ederrak eta eta putzak minak izaten dira, gero!” esan zuen bazterreko txokoan erresuminduta zegoen egileak. Zer adierazi zuen egile horrek hitz horiekin?
  - Poza.
  - Haserrea.
  - Aho-korapilo dibertigarri bat.

6. Zer esan nahi du *kakanarru* hitzak?
- Altuera eta gorpuzkera txikikoa.
  - Kakagurak dagoena.
  - Arropa zahar eta apurtutakoekin jantzitakoa.
7. Egileek zukua eta orratzontzi bat handi bat ekarri ziotenean, “Hau pagotxa!” esan zuen Jokin Galtxagorrik. Ondoko zein esaldik adierazten du esamolde horren esanahi bera?
- Larrutik ordaindu beharko dut hau ere!
  - Hau suertea! Eskatu eta eman!
  - Auskalo zerekin egin duten zuku hau!
8. Ondorengo esamoldeetako hiruk esanahi bera dute testuan. Zein dira hiru horiek?
- Ozpin amorratuak eramanda bezala.
  - Paretako karea baino zuriago.
  - Tximista baino azkarrago.
  - Ziztu bizian.
  - Sututa.
9. Bila itzazu testuan *espartinak* hitzaren bi sinonimo eta hitz hori definitzeko balio dezaketen hitzak.
- Sinonimoak: 1. .... 2. ....
- Definizioa: .....
- .....
10. Zein gairekin erlazionatu zuen Jokin Galtxagorrik ekarritako gauza bakoitza? Lotu itzazu gezien bitartez.
- |               |                       |
|---------------|-----------------------|
| espartinak    | Arabia                |
| patata-poltsa | Txina                 |
| kus-kusa      | herria                |
| dilistak      | ura                   |
| “litchia”     | eskualdea             |
| potoa         | Kolon aurreko Amerika |
| botila        | airea                 |
|               | bizidunen ugalketa    |
|               | lokomozio-aparatua    |
|               | Egipto                |
|               | arnas aparatua        |
11. “*Txanela 4* liburuen egileak zer egin eta zer esan asmatu ezinik zeuden. Jokin Galtxagorriari eman zioten hark eskatu zuen fruta-zukua, buruari hazka egin zioten eta elkarri begira geratu ziren.” Nola geratu ziren?
- Kezkaturik, izan ere Jokin Galtxagorrik ez baitzuen mandatua bete.
  - Txundituta, zur eta lur, Jokin Galtxagorrik mandatua bete zuen moduagatik.
  - Urduri eta gorputz osoko hazkurarekin.



12. Adieraz ezazu irakurri berri duzun hori zein testu mota den eta arrazoitu zure erantzuna. Horretarako, hauta ezazu zutabe bakoitzean aukera egokia.

- |                          |   |
|--------------------------|---|
| a. Komiki-gidoia da.     | 1. Pertsonaia batzuk bizi dituzten alegiazko gertaerak kontatzen dituelako.                     |
| b. Konparazio-testua da. | 2. Marrazkiz eta pertsonaien arteko elkarrizketez osatuta dagoelako.                            |
| c. Ipuina da.            | 3. Jeinua eta bere morroiaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak deskribatzen direlako. |
| d. Argibide-testua da.   | 4. Gehiago ikasleko aholkuak eta eman beharreko urratsak ematen dituelako.                      |

13. Idatzi hitz gutxitan, testu honek kontatzen duen istorioa.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Aurrera jarraitu aurretik, ikasle bakoitzari ipuinaren laburpena ahoz kontatzeko modurik eginez gero, 15 helburuari dagokion 2. irizpidea behatzeko aukera ere izan dezake irakasleak.

Bakarkako irakurraldi horren ondoren, ohiko lanketa egin daiteke testuarekin. Irakur ezazue, beraz, talde txikietan *rol* banaketa eginez (1. gidan duzue metodologia honi buruzko azalpena). Jarduera hau ulermena lantzeko egingo dugu. Ondoren, ikasleei agertu egingo diegu, ipuina aztertu egingo dugula, aurrerago beraiek ere ipuin bat idatzi beharko dutelako. Beraz, ahoz aztertuko ditugu hainbat atal:

- Egiturari dagokionez:
  - Zer nolako egitura du ipuin honek?*
  - Nola hasten da?*
  - Non gertatzen da?*
  - Noiz gertatzen da?*
  - Zein da arazoa?*
  - Zein dira gertakizun aipagarrienak?*
  - Nola bukatzen da?*
  - Alegia bat dela esan al genezake? Zergatik?*
  
- Pertsonaiak:
  - Pertsonaien deskribapenik egiten al da?*
  - Nolakoa?*
  - Adjektiboak erabiltzen al ditu? Zein?*

- Hiztegia:
  - Ezagutzen ez zenuen hitzik agertu al da? Zein?
  - Nola argitu duzu horren esanahia, hiztegian begiratuta, kontestuaren arabera...?
  
- Esamoldeak:
  - Ipuin horretan agertzen al da esamolderik berezirik?
  - Ba al zenekien esamolde horren esanahia?
  - Nola interpretatu duzu esamolde horren esanahia?
  
- Ortografia:
  - Puntuazio ikurrei dagokionez, elkarrizketarik ageri al da?
  - Zein ikur erabiltzen da horretarako?
  - Bi puntuak erabili al dira? Zertarako balio dute bi puntuek?
  - Komaren erabilera dela eta, hartu ipuineko pasarte bat eta adierazi nola eta zertarako erabili den koma.

## 6. Proiektuaren aurkezpena

*Lan egiteko era: Talde handian - Talde txikian*

*Materiala: Liburua, 7. or.*

Talde handian, orrialde horretan gure pertsonaiek esandakoa irakurriz, unitate honetako proiektua zein den argituko dugu. Ondoren, karpeta nola egin adierazten duen jarraibide-testua irakurriko dugu, materiala gelan dugunean, karpeta egiteari ekiteko.

Bestalde, ikasleei esango zaie, berriz ere, eta orrialde horretako aginduak adierazten duten bezala, aurrerago ipuin bat idatzi beharko dutela. Horregatik, gogorarazten zaie unitatea landu bitartean sortzen zaizkien ideiak folio edo koadernotxo batean apuntatzeko, amaieran euren ipuina sortu eta idatzi ahal izateko. Lan hau nola egin jakiteko lagungarria gerta dakizueke *Proiektua egiten* atalean (39. orrialdea) ageri den informazioa irakurtzea.

## 7. Ikasnorabidea

*Lan egiteko era: Talde txikian - Talde handian*

*Materiala: Liburua, 8. eta 9. or.*

Taldetxoetan jarrita, ikasleek ikasnorabidea irakurtzeko eta haren interpretazioa egiteko tartea izango dute, eta esaldi bakoitzak adierazten duena argitzen saiatuko dira.

Gogora ezazue atal berri bakoitza hasi aurretik, eta hura bukatzean, ikasnorabidera joan-etorria egitea lagungarri gerta dakizuekeela, eginbeharrekoaz eta egindakoaz jabe daitezen ikasleek.

## 8. Herria eta eskualdea

*Lan egiteko era: Talde txikian - Talde handian - Bakarka*

*Materiala: Liburua, 10. eta 11. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li> </ul>	<i>Ahozko adierazpena + Idatziaren ulermena.</i>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Helburuak eta irizpideak</i></li> </ul>	3 ( 3.2, 3.3, 3.4, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2) 5 (5.3, 5.4, 5.5)
<i>Ingurunea:</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li> </ul>	<i>Ulermena</i> – <i>Ingurune sozialeko elementuak izendatu eta hauetako batzuk mapan kokatu (herrialdeak, herriak, eskualdea, mapa mota...).</i> – <i>Puntu kardinalak ezagutu eta erabili.</i> – <i>Lerro-diagrama osatu, interpretatu eta ondorioak atera.</i>

Bi orrialde horietan (10 eta 11. orrialdeak) iragandako bi ikasturtetako lehenengo unitateetan landutako *Gure herria* eta *Gure eskualdeari* buruz landutako hainbat alderdi behatzeko aukera eskaintzen duten jarduerak dituzue. Unitateko jarduera horiek ebaluatzeko tresna bezala erabiltzeko asmoa baldin baduzue, komenigarria litzateke unitate horietan landutakoa gogora ekartzea eta aldeztu aurretik errebaso txiki bat egitea, orduetik hona denbora luzea pasatu baita.

Errebasoa egiteko ikasleak talde txikiak osatuko dituzte eta bi unitate horiek aurrean dituztela, elkarrizketa sortu ikasitakoa eta egindako proiektua gogora ekartzeko eta baita ere gehien eta gutxien gustatu zitzaizkien hitz egiteko.

Lan hori egin bitartean, esku artean dugun zazpigarren unitateko ikasnorabidean gai horri dagokion blokearekin erlazionatzea ere garrantzitsua da. Ondoren, talde bakoitzetik ikasle batek bozeramaile lana egin dezake, eta talde handiari berri eman zer izan den talde txikian hitz egin dutena.

Errebasoa egiteko, komeniko litzaizueke Euskal Herriko mapa fisikoa, politikoa eta, ahal dela, errebaso-mapa bat gelan begi bistan izatea.

Bukatzean, unitateko jarduerak bakarka osa ditzatela ikasleek. Jarduera horien bidez, irakasleak ikus dezake ea inguruneke edukiak bereganatu dituzten. Eduki horiek zein diren jakiteko, beha ezazu ikasnorabidean inguruneari dagokion atala.

Gogoratu zazpigarren unitate honetan aurreko bi urteetan zehar landutako unitateen errebasoa eginaz arituko garela eta han ikasitakoa eta egindakoa ekarriko dugula gogora. Joan-etorriko bide hori, beraz, behin baino gehiagotan errepikatuko dugu, eta bakoitzean komeni da talde txikietan eta elkarrizketa bide izatea. Beraz, kontuan izan elkarrizketa-egoeratan ebaluatzeko komenigarria dela talde finkoak izatea, eta bozeramaile-lana, aldiz, txandakatuz egitea: aldi bakoitzean taldeko ikasle bat izatea talde handiari hitz egindakoa adieraziko diona. Modu horretan, irakasleak hainbat aukera izango ditu talde txikian ematen den interakzioei behatzeko, eta baita ere ikasle bakoitzak bozeramaile lanetan egindako ahozko adierazpenari behatzeko.

## 9. Hainbat zibilizazio mapetan kokatzen

Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Binaka

Materiala: Liburua, 12. eta 13. or.

Ebaluazioa:

Ingurunea:	<ul style="list-style-type: none"><li>Gaitasun nagusia</li></ul>	<i>Ulermena</i> –Ingurune sozialeko elementuak izendatu eta mapan kokatu (kontinente, ozeano eta itsaso nagusien izenak, Euskal Herria)
------------	--	--

Bi urte hauetan munduko hainbat zibilizazio ezagutu ditu ikasleak, eta mapan kokatzen ikasi. Zibilizazio horiek zein diren gogora ekarriko ditugu, talde handian, eta baita arbelean idatzi ere haien izenak. Gero, munduko horma-irudi mapa begi bistan dutela gelan, eta bakarka, nahiz binaka, mapak kontsultatuz eta haiei behatuz, liburuko orrialde horietan (12. eta 13. orrialdeak), munduko sei kontinente eta ozeanoak, eta itsaso nagusien izenak mapan kokatuko dituzte; bide batez, baita arbelean idatzitako zibilizazioen izenak ere. Txinako Huang Ho ibaia eta Nilo ere kokatzen saia daitezen animatuko ditugu. Bukatzean egindako lana berrikusiko dugu, talde handian aztertuz.

Horren ostean, tarte bat emango diegu ikasleei, eta esango diegu liburuan idatzitako kontinenteen, ozeanoen eta itsaso nagusien izenak ikasi behar dituztela, eta baita ere Euskal Herriaren eta aurreko leku geografiko horien guztien kokapena ere ikasi behar dutela, jakin behar dituztela munduko mapan kokatzen, aurrerago galdetu egingo baitiegu. Ziurta ezazue ikasleek badakitela zer ikasi behar duten.

Orrialde batean kopiatu edo marraztu munduko mapa mutua eta bertan adierazi eta idatzi honako datu hauek:

- Idatz eta koka itzazu mapan:
  - . Kontinenteen izenak.
  - . Ozeanoen izenak.
  - . Itsaso nagusien izenak.
  - . Euskal Herria.
  - . Aurrez gelan landu eta jarduera honetarako aukeratako bestelako herrialde, ibai edota mendien izenak (hauek adostu edo idazteko agindu ditzakezue).

## 10. Egipto. Ideia nagusia informazioa laburtzeko tresna gisa

Lan egiteko era: Talde txikian - Talde handian - Bakarka

Materiala: Liburua, 14. eta 15. or.

Ebaluazioa:

Hizkuntza:	<ul style="list-style-type: none"><li>Gaitasun nagusia</li></ul>	<i>Ahozko adierazpena</i> <i>Idatziaren ulermena.</i>
	<ul style="list-style-type: none"><li>Helburuak eta irizpideak</li></ul>	3 ( 3.2, 3.3, 3.4, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2) 5 (5.3, 5.4, 5.5) 8 (8.1, 8.2) 9(9.1,9.2)

Aintzinako Egiptoren berri izan genuen hirugarren mailako bigarren unitatean. Orduan egindako lana (ikasitakoa eta abar) gogora ekarriko dugu talde txikietan elkarriketa eginez.

Errepasoa egiteko ikasleek talde txikiak osatuko dituzte, eta, Egiptoko unitatea aurrean dutela, elkarrizketa sortuko dute, ikasitakoa gogora ekartzeko. Hau egin bitartean, zazpigarren unitateko ikasnorabidean gai horri dagokion blokearekin erlazioa dezatela. Ondoren, talde bakoitzeko ikasle batek bozeramaile-lana egingo du, eta talde txikian hitz egindakoaren berri emango dio talde handiari.

Testu honetako Egiptori buruzko informazioa ikasleek ez dute zertan ikasi, baina bai, ordea, informaziorik garrantzitsuena aurkitzen jakin, eta hori da, hain zuzen ere, egingo dutena bi orrialde horietako urratsei jarraituz.

Egiptori buruzko informazioa gogora ekartzeko egindako elkarrizketaren ostean, testua talde handian irakurriko dugu, batetik, ikasleek bakarka egin beharko duten lanaz jabe daitezen, eta, bestetik, ideia nagusia aurkitzeko eman beharreko urratsak taldean gogora ekarriz idatz ditzagun.

Beraz, lan gehiena taldean egingo dugu. Azken jarduera, ordea, bakarka egin beharko dute ikasleek, hau da, testuko ideia nagusiak identifikatu, folio batean kopiatu, eta, egindako idatzia apaintzeko, marrazkia eginez. Lan hori jaso eta hor goiko koadroan adierazten diren hizkuntzako ebaluazioa egiteko irizpideak kontuan izanik, ebaluatze-aprobetxa dezakezue.

Ebaluatze-lanak bukatzean, itzuli iezaiezue ikasleei lana euren karpetan sar dezaten.

## 11. Txina

*Lan egiteko era: Talde txikian - Talde handian - Bakarka*

*Materiala: Liburua, 16. eta 17. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	<i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ahozko adierazpena Idatziaren ulermena</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	3 ( 3.2, 3.3, 3.4, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2) 5 (5.3, 5.4, 5.5) 8 (8.1, 8.2) 12 (12.1, 12.2, 12.3, 12.4, 12.5)

Talde txikietan, eta Txinako unitatea aurrean dugula, elkarrizketa sortuko dugu hainbat gaien inguruan hitz egiteko: egindako proiektuaz, ikasitakoaz, gehien eta gutxien gustatu zitzaigunaz, anekdotaz... Bukatzean, taldeko bozeramaileak talde handiari adieraziko dio talde txikian hitz egindakoa. Horren ostean, ikasleek bakarka Txinako testua irakurri, ulertu eta jarduerak osatzeari ekin beharko diote, irakasleak diktatzen dienean testua zuzentasunez idazteko.

Jarduera hauen bidez, eta lanak jarraitzen duen bitartean, behaiezakezue ikasleei ea hizkuntzako elementuen ezaugarriei eta funtzionamenduari buruz oinarrizko ezagutzak badituzten, alegia, badakizkiten hitzaren eta esaldiaren ortografiari buruzko arauak, bereganatu dituzten eta, hala bada, arau horiek zuzen erabiltzen dakiten (diktaketak emango dizue horren berri).

Ikasleek diktaketa folio batean egingo dute, eta apaintzeko irudia egin aurretik irakasleari emango diote; irakasleak diktaketa jaso eta egindako lanaren inguruan oharrak egingo dizkiete. Irakasleak bere lana bukatzean, diktaketa ikasleei itzuliko die, eta horiek, liburuko 16. orrialdeko testua aurrean dutela, hala behar izanez gero, zuzenketak egingo dituzte. Gero, testuari dagokion irudia marraztu eta margotu egingo dute karpetan sartzeko.

## 12. Olerkiak sortzen

*Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Talde handian*

*Materiala: Liburua, 17. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li></ul>	<i>Adierazpen idatzia</i> <i>Ahozko adierazpena</i>
	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Helburuak eta irizpideak</i></li></ul>	<i>11 (11.1, 11.2, 11.5, 11.6)</i> <i>12 (12.1, 12.2, 12.3, 12.4, 12.5)</i> <i>15 (15.1)</i>

Taldean, jarduera irakurri eta bere garaian egindako olerkiak gogora ekarri ondoren, ikasle bakoitzak bere olerkia osatzen hasiko da.

Lehenengo mailan hasi eta gaur arte gure ikasleek hainbat olerki irakurri dituzte. Sortu ere bat edo beste sortu dute. Oraingoan ere, gauza bera egin beharko dute.

Olerkia sortu ostean, norberak bere olerkia berrikusiko du, eta, gero, irakaslearen laguntzarekin aztertu eta berrantolatuko du. Beharrezko ikusten diren aldaketak proposatuko dizkio irakasleak (errima aldetik, ortografiaren ikuspuntutik...), eta ikasleak berriz idatziko du olerkia, hala egoki iruditzen baziao. Olerkia zuzendu ostean, apaindu egingo du, eta, bukatzean, talde handian, ikasle bakoitzak bere olerkia errezitatuko dio talde handiari.

Jarduera honen bidez hizkuntzako bi helbururi dagozkion irizpideak beha ditzakezue, bata, testu idatzi sinpleak (olerkia) sortzeari dagozkiona, eta, bestea, ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzeari dagokiona.

## 13. Amerika: Ameriketara joan nintzen...!

*Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian*


*Materiala: Liburua, 18. eta 19. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li></ul>	<i>Idatziaren ulermena.</i>
	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Helburuak eta irizpideak</i></li></ul>	<i>7 (7.1, 7.6)</i> <i>8 (8.1, 8.2)</i>
<i>Ingurunea:</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Ulermena, adierazpena</i></li></ul>	<i>Grafikoak osatzea</i>

Lehen jardueraren helburua, testu batetik informazio jakin bat lortzea da. Jarrai itzazue bertan proposatzen diren urratsak. Izan kontuan ez dela koadro guztia osatuko, ez baitzaie dena betetzeko informazioa ematen testuan.

Azken jardueraren helburua informazio jakin bat grafikoki adieraztea da:



#### 14. Mila gau eta bat gehiago!

*Lan egiteko era: Talde txikian - Talde handian*

*Materiala: Liburua, 20. eta 21. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li></ul>	<i>Ahozko adierazpena</i> <i>Idatziaren ulermena</i>
	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Helburuak eta irizpideak</i></li></ul>	<i>5 (5.1, 5.2, 5.3, 5.4, 5.5)</i>
<i>Ingurunea:</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li></ul>	<i>Ulermena:</i> <i>–Inguruneko gertakizun historiko baten berri eman.</i>

Beste gaiekin bezala, talde txikietan, eta arabiarrei buruzko unitatea aurrean dugula, elkarrizketa sortuko dugu, eta bukatzean, taldeko bozeramaileak talde handiari adieraziko dio talde txikian hitz egindakoa.

Orrialde hauetan (20 eta 21. or.) adierazi bezala, ikasleek, euskal historiaren zati bat (Orreagako gatazkak, Nafarroako erresumaren sorrera eta zabalkuntza...) ahoz adierazi beharko diote ikasleek irakasleari, liburuko irudietan eta oharretan oinarrituz. Ahozko adierazpenaren planifikazioa prestatzen binaka arituko dira ikasleak, eta aurrez hainbat saio egingo dituzte, liburuko urratsei jarraituz. Ahozko azalpenak egiteko urratsak *Mila gau eta bat gehiago* unitatean landu zenituzten, beraz errepasa ditzatela.

Ikasleek planifikazio-lana egiten duten bitartean, irakasleak lan horren inguruko oharra jaso ditzake. Ikasleek irakasleari bakarka egindako ahozko azalpenean, inguruneko nahiz hizkuntzako helburuei dagozkion ebaluatzeko irizpideei beha diezaioke.

#### 15. Irakurzaletasuna

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Liburua, 21. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li></ul>	<i>Idatziaren ulermena</i> <i>Ahozko adierazpena</i>
	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Helburuak eta irizpideak</i></li></ul>	<i>4 (4.1, 4.2, 4.3)</i> <i>16 (16.1, 16.2)</i>

Martinen eta Kleoren hitzak aitzakia hartuta, irakurzaletasunari egingo diogu leku jarduera honetan.

Ziklo honetan zehar, gelako liburutegiaren inguruan eramandako dinamika emango digu behar dugun informazioa irakurzaletasunarekin zerikusia duten irizpideak baloratzeko.

Horretarako, oinarrian, bi irizpide hauen inguruko informazioa jaso beharko da:

- Irakurritako liburuen erregistroa:
  - . Ikasleak maiztasunez eramaten du liburutegiko ipuinen bat etxera irakurtzeko edota herriko liburutegiko ipuinak maiztasunez irakurtzen ditu.
- Irakurritakoari buruzko iritzien azalpena eta justifikazioa.
  - . Behatzekoa da gelan egindako jardueretan, irakasleak erregistroei behatuz sor daitezkeen elkarrizketetan nahiz iritzi mailako galderetan.

Bigarren irizpide horri dagokionez, ondorengo jarduerak ere aukera eman diezazueke ikasle jakin batzuei buruzko datuak hartzeko.

*Taldean egiteko ariketak dituzue hauek:*

- *Ekar itzazu gogora aurten irakurri dituzun ipuinak. Zein izan duzu gustukoena? Zergatik? Zer ezaugarri edo baldintza bete behar du ipuin batek zure gustukoa izateko?*
- *Talde handian, eta irakaslearen laguntzarekin, idatz ezazue arbelean oportretan irakurgai izan daitezkeen ipuinen zerrenda; gero, aukeratu zuk zein irakurriko duzun.*
- *Ipuina irakurtzeaz gainera, egin ezazu haren laburpen tentagarria. Egizu orri zuri batean, eta apaindu dotore-dotore.*

Laburpen tentagarria zer den gogoratzeko:

- *Norbaiti ipuin jakin bat irakurtzeko aholku ematen zaionean, liburu horren laburpen tentagarria egiten zaio; hau da, ipuinaren hasiera kontatzen zaio, eta korapiloa bera ere bai, baina ez zaio esaten nola amaitzen den. Nola amaitzen den esan orde, amaierari buruzko galdera tentagarriak egiten zaizkio. Laburpen horrek amu-lana egiten du, hartzaileari liburua irakurtzeko gogo pizteko*

## 16. Giza gorputza. Garuna, giharrak, ugalketa

*Lan egiteko era: Talde txikian - Talde handian - Bakarka*

*Materiala: Liburua, 22. eta 23. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li> </ul>	<i>Adierazpen idatzia</i> <i>Hausnarketa</i> <i>11 (11.1, 11.2, 11.3, 11.4, 11.5, 11.6)</i> <i>12 (12.1, 12.2, 12.3, 12.4, 12.5)</i>
<i>Ingurunea:</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li> </ul>	<i>Ulermena:</i> <i>–Kontzeptuak gogoratzea.</i>

Ezertan hasi aurretik, giza gorputzaren inguruko hainbat eduki lantzeko erabili genituen unitateetan (*Urte askoan txapela kaskoan, Mugi gorputza eta izan ontsa eta Izan zirelako gara, garelako izango dira*) landutakoak gogora ekartzen saiatuko gara, zer ikasi genuen gai horietan (kontzeptu, prozedura zein jarrerazko edukiak), zein proiektu burutu genuen, etab. Errepaso moduko hori egiteko 3.3, 4.3, eta 4.6 unitateak aurrean izatea komenigarria litzateke. Gogoratu, hizkuntzako 3., 4. eta 5. helburuari dagozkien hainbat irizpideri behatzeko aukera ere baduzuela.

Ikasleek inguruneke hainbat kontzeptu gogoratzen dituzten jakiteko erabil ditzakegu jarduera honetako ariketak. Baina inguruneaz gain, hizkuntzako testuak (hitzak, esaldiak edota paragrafoak) idazteko moduari ere erreparatuko diogu, koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei, alegia. Beraz, beha iezaiezue helburu horri dagozkion ebaluatzeke irizpideei, eta har itzazue horien inguruko oharrak.

Aholku horien inguruko oharrak hartu ostean, ikasleekin batera horiek adierazteko moduari erreparatu, eta berrikusketa eta zuzenketa bideratuko ditugu. Bukatzean, aholkuak folio batean txukun-txukun idatzi eta bere karpetan gordeko ditu ikasleak.



## 17. Hitz-errota

*Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian*

*Materiala: Liburua, 24. or.*

*Ebaluazioa:*

Hizkuntza:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ahozko adierazpena</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	3 (3.1, 3.2, 3.4, 3.5, 3.6, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2, 4.3) 7 (7.5)

Dagoeneko hainbat hitz-errota egin dituzue bi urte hauetan eta seguruenik hauen inguruko hainbat ohar izango dituzue jasoak.

Jarduera honen bidez, elkarrizketari dagozkion irizpideei berriro behatu eta ebaluatzeko aukera izateaz gain, egoera jakin batzuen aurrean ikasleek duten jarrera kritikoa baloratu dezakezue. Hitz-errota behatzeko erabili ohi duzen txantiloian jaso dezakezue informazioa (lehenengo jardueraren azalpenean dago).

Hitz-errotaren abiapuntu bezala bi egoerari buruzko iritzia idazteko eskatuko zaio ikasle bakoitzari. Ikasleek idatzitako iritzi horietan bereizkerien aurrean hartzen duten jarrerari beha diezaiokegu.

## 18. Pertsonen deskribapena.

*Lan egiteko era: Talde txikian - Talde handian - Bakarka*

*Materiala: Liburua, 25. or.*

*Ebaluazioa:*

Hizkuntza:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Adierazpen idatzia</i> <i>Ahozko adierazpena</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	3 (3.1, 3.2, 3.4, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2, 4.3) 11(11.1, 11.2, 11.3, 11.4, 11.5, 11.6, 11.7)

Talde txikietan liburuan proposatzen zaizkigun gaien inguruan hitz egiteko elkarrizketa sortuko dute ikasleek irakaslearen laguntzarekin. Elkarrizketa hori egin bitartean, oraindik behatu gabeko ikasleei buruzko oharrak jaso ditzakezu, irakasle.

Elkarrizketa ostean, talde handian, deskribapenaren inguruan ikasitakoa gogora ekarriko dugu. Litekeena da gelako horma-irudiren batean ere deskribapenaren inguruko hainbat informazio idatzita izatea, hala bada, ikasleek euren deskribapenak bakarka egiten hasten diren bitartean horiek kontsultatzen ere utziko diegu. Deskribapena bukatzean, ikasleak berrikusketa- eta zuzenketa-lanak egitera animatuko ditugu. Deskribapen hauek jasoz gero, testu sinpleen (deskribapenean) idazketari buruzko irizpideak ebaluatu ditzakezue. Bukatzean bueltatu lana ikasleei euren karpetan gorde edota aukeratutako irakasleari oparitu diezaioten.

## 19. Natura. Animaliak eta landareak

*Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka*

*Materiala: Liburua, 26. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Idatziaren ulermena</i> <i>Adierazpen idatzia</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>5 (5.1, 5.2, 5.3, 5.4, 5.5)</i>
<i>Ingurunea:</i>	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ulermena:</i> <i>–Kontzeptuak gogoratzea eta erlazionatzea.</i>

Ikasleek bakarka jarduera osatzen hasiko dira: informazio-testua irakurtzeko eta kontzeptu-maparen bidez adierazteko eskatzen zaie. Lan hori egin ondoren, kontzeptu-mapa irakasleari erakustez gain, informazio hori ahoz, eta modu zuzenean, adierazi ere egin beharko dute. Jarduera horren bidez, eta ingurunekeo hainbat kontzeptu gogora ekarriz, aztertu, behatu eta ikus dezakezue, beraz, ikasleek badakiten testu idatzi sinpleak kontzeptu-mapa bidez sintetizatzen.

Ondoren, talde txikietan, gogora ekarriko ditugu naturarekin lotutako hainbat eduki lantzen zituzten bi unitate horiek, eta gogoratuko ditugu han ikasitakoak, egindako proiektua, landutako gaien inguruan gehien gustatu zitzaiguna...

## 20. Natura. Ekosistemak.

*Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka*

*Materiala: Liburua, 27. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ahozko adierazpena</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>5 (5.1, 5.2, 5.3, 5.4, 5.5)</i>
<i>Ingurunea:</i>	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ulermena:</i> <i>–Kontzeptuak gogoratzea eta erlazionatzea.</i>

Talde handian argazkiei behatu, bertan agertzen diren elementuak aipatu, eta ekosistema bakoitzaren izena idatziko dugu. Horren ostean, ikasleek bakarka egin behar duten jarduera taldean irakurri eta argituko dugu, elika-katea zer den gogora ekarriz, informazio-iturri bezala gai horrekin zerikusia duten unitateak erabiliz. Ondoren, ikasleek bakarka egingo dute lana, eta ekosistema horietatik bat aukeratu eta haren marrakia folio batean egiteaz gain, bertako animaliek osatutzen duten elika-katea ere osatuko dute; bukatzeko, irudia aurrean dutela irakasleari elika-katea zer den azalduko diote.

## 21. Igarkizunak.

*Lan egiteko era: Bakarka - Binaka - Talde txikian - Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak, 140. or.*

Ikasleek, bakarka, irakurgaietako igarkizunak irakurri, eta, irudiekin erlazionatuz, asmatzen saiatuko dira. Gero, taldean erantzunak elkarri azaldu eta iritziak bateratzen ahaleginduko gara.

Hona hemen erantzunak: eukalipto, iluntasuna, haize-errota edota zentral eolikoa, izotza, ezkurra, orrazia.

## 22. Airea eta ura

*Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka - Binaka - Talde txikian*

*Materiala: Liburua, 28. eta 29. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li></ul>	<i>Ahozko adierazpena</i>
	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Helburuak eta irizpideak</i></li></ul>	<i>5 (5.3, 5.4, 5.5)</i>
<i>Ingurunea:</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li></ul>	<i>Ulermena:</i> <i>–Kontzeptuak gogoratzea.</i> <i>–Kontzeptuen arteko erlazioak ezartzea.</i> <i>–Kontzeptuak izendatzea.</i>

Bi orrialde hauetan aurreko bi urtetan aireari eta urari buruzko unitateetan landutako hainbat eduki berriz gogoratzeko aukera duzue. Unitateko jarduerak ebaluatzeko tresna bezala erabiltzeko asmoa baldin baduzue, komenigarria litzateke gogora ekartzea unitate horietan landutakoa, errepasso txiki bat eginez, orduetik hona denbora luzea pasatu baita.

Horretarako, ikasleak talde txikiak osatuko dituzte, eta, bi unitate horiek aurrean dituztela, elkarriketa sortuko dute unitate horietan ikasitakoa eta egindako proiektua gogora ekartzeko eta baita ere gehien eta gutxien gustatu zitzaizkien hitz egiteko. Hori egin bitartean, zazpigarren unitateko ikasnorabidean gaiari dagokion blokearekin erlazionatuko dituzte edukiak. Ondoren, talde bakoitzeko ikasle batek bozeramaile-lana egin dezake, eta talde txikian hitz egindakoaren berri eman talde handiari. Talde handian, beraz, landutako edukiak gogora ekarri ostean, ikasleek, bakarka, unitateko jarduerak egingo dituzte.

## 23. Artea

*Kudeaketa mota: Talde handian - Bakarka*

*Materiala: Liburua, 30., 31., 32. eta 33. or.*

Talde handian bi urte hauetan zehar egindako artelanei behatu ostean gogora ekarriko ditugu plastikan egindako hainbat lan ere: buztina, margoak, maketak...

Bukatzean, lan hauetatik gure karpetan gordetzeko modukoa izan daitezkeenak adostu eta horien artean aukeratu ostean egiteari ekingo diogu. Lan hauek plastikako hainbat alderdi behatzeko erabili ditzakezue, hala nola, sormena, materialen erabilpena, garbitasuna, ikasitako tekniken erabilpena...horrez gain, euren ardura materialak erabilpenean eta zainketan.

Jarduera hau talde txikietan eginez gero ahozkotasanarekin zerikusia duten irizpideei behatzeko aukera izan dezakezue.

## 24. Musika.

*Kudeaketa mota: Talde handian*

*Materiala: Liburua, 34. or.*

Azken bi urtetan hainbat lan garatu ditugu entzunaldien inguruan: euskal dantzak, beste herri eta kultura batzuetako dantzak, abestiak, koreografiak, dramatizazioak, ipuinak, bisualizazioak, masajea, erlaxapena, gure konpositoreen txokoa... Talde handian egindako lana gogora ekarriko dugu, eta, oro har, aipatutako gai horiei buruzko iritzia adieraziko dugu. Bukatzean, nahi dugun dantza (edo dantzak) aukeratu, eta dantzatuko egingo ditugu.

## 25. Elkartasun jolasak

*Kudeaketa mota: Bakarka - Talde handian*

*Materiala: Liburua, 34. or.*

Lehenengo eta behin, musika elkartasun-jolasekin uztartuz egindako bi jolas gogora ekarriko ditugu, eta haiekin jolasten hasiko gara.

**Aurki gurpila.** Ikasleak, zutik eta bata bestearengandik oso gertu, ilaran jarriko dira, aurreko lagunari gerritik helduta eta zirkunferentzia osatuz. Musika entzuten hasten direnean, erritmoari jarraituz mugituko dira, eta musika isiltzen denean, atzean duten lagunaren altzoan esertzen saiatuko dira. Jolasaren helburua talde guztia, inor jausi gabe, atzeko lagunaren altzoan esertzea da. Gero, eserita gaudela eta musikaren erritmoa jarraituz, gurpila martxan jarriko dugu, hau da, dantzatzen hasiko gara.

**Besarkada musikala.** Ikasleak gela zabal batean saltoka ibiliko dira entzuten duten musikaren erritmoari jarraituz. Musika eteten den lehenengo aldi (irakasleak eteten du egoki ikusten duenean), ikasle bakoitzak hurbilen duen ikaskidea besarkatuko du eta bikoteka jarraituko dute musikaren erritmoan saltoka eta dantzan. Musika berriz isiltzean, ondoan duten beste bikotea besarkatu eta launaka dantzatuko dute, gero zortzinaka eta honela gela guztia besarkada bakar batean bildu arte.

Jolastu ondoren, ikasleei tarte bat emango diegu, liburuko galdetegia irakurri eta elkartasun jolasen inguruan hausnartu ostean, euren iritzia adierazi dezaten. Bukatzean talde handian elkarrizketa sortuko dugu, bakoitzak bere iritzia adierazteko eta besteenarekin kontrastatzeko.

Jarduera hau ere ahozkotasanarekin zerikusia duten irizpideei behatzeko balia dezakezue.

## 26. Komikia. San Joanak.

*Kudeaketa mota: Bakarka - Talde handian*

*Materiala: Liburua, 35. or.*

Ikasleei komikia bakarka irakurtzeko tarte bat eman ostean, talde handian irakuriko dugu berriz; ondoren, elkarrizketa sortu eta hainbat gaien inguruan hitz egingo dugu:

- Zein egun da ekainaren 23a? San Joan bezpera.
- Eta ekainaren 24a?
- Zer esan nahi du: San Joan berde, artoak eta gariak gorde eta lapurrak eta sorginak erre?
- Ezagutzen al duzu kanta hori? Zer adierazi nahi du? Zertarako abesten da?

Ondoren, komikiko erranak eta esamoldeak aitzakia, *Erranak erran* sailari tartea egingo diogu.

## 27. Erranak erran

*Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka*

*Materiala: Liburua, 35. or.*

*Ebaluazioa:*

Hizkuntza:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Idatziaren ulermena</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>15 (15.3)</i>

Aurreko jarduerako elkarrizketari jarraipena emanaz:

- Zer adierazi nahi du “ordu txikiak” esamoldeak? Ba al dakizu zein ordu diren horiek?
- Zer adierazi nahi du esamolde honek? “Orain arte belar, hemendik aurrera gari!”

Azkeneko urteetan hainbat esamolde eta esaera landu eta erabili ditugu, taldean haiek guztiak gogora ekartzen saiatuko gara.

Ondorengo jarduera folio batean jarri eta eman iezaiezue ikasleei bakarka osa dezaten.

Izena: ..... Data: .....

- Irakur itzazu ondorengo esaera eta esamoldeak, eta beraien esanahiaren inguruan hausnartu ondoren, aukeratu beherago deskribatzen den egoera bakoitzari dagokiona.

MELA-MELA EGINDA  
ARDI LARRUZ ESTALITAKO OTSOA  
APARRA BAINO HARROAGO  
BLAI-BLAI EGINDA  
ARIN ETA ONDO, USOAK HEGAN  
AZKAR ETA ASKO, ASTOAK BUZTANPETIK  
OILAR-OILAR EGINDA  
EMANEZ GERO, TXAKURRAK ERE LAGUN  
AKATSIK GABEKO LAGUNA, AURKITU EZIN DUGUNA

Egoerak:

1. Xabier eta Mei Li etxerantz doazela euria hasi du eta goitik behera bustita heldu dira etxera.  
.....
2. Kleo Jexuxmairekin korrika egitera joan da. Jexuxmai baino askoz ere lehenago heldu da etxera Kleo, gaur indartsu sentitzen zelako. Oso pozik eta harro dago egindakoaz eta batez ere Jexuxmairi irabazi diolako. Jexuxmai heltzean zera esan dio: *Zer, Jexuxmai ezinean ala?*  
.....
3. Kleok Jexuxmairi hori esan arren, Jexuxmaik badaki Kleo bere lagun handia dela eta aintzat hartzen du.  
.....
4. Ane ez da Mainerren oso lagun handia, baina gaur Mainerren ondoan dabil egun osoan, izan ere, Mainerren urtebetetze eguna da eta Anek haren etxera joan nahi du meriendatzera.  
.....
5. Xabierrek parkera atera nahi du jolastera eta etxerako lanak arineketan egin ditu. Hurrengo egunean horiek zuzentzeko orduan lana gaizki egin zuela konturatu da.  
.....
6. Mei Liri ez zaio Ikerrekin jolastea gustatzen. Mutil zintzoa dirudi baina ezkutuan bihurrikeriak egitea gustatzen zaion horietakoa dela badaki Mei Lik.

- 
- Jar zaitezte binaka eta hor beheko esamoldeen esanahia argitu ostean, horietako batzuk nahiz denak erabiliz, asma ezazue istoriotxo edo egoera bat. Prestatze-saioak egin ostean, dramatiza ezazu asmatutako istorioa gelakideen aurrean.

KAKA ZAHARRA  
LOTSABAKO HORI!  
OPORREI BEGIRA EGON  
HAMAIKA IKUSTEKO JAIOAK GARA  
BATEK DAKI!  
NIRE LAGUNAREN LAGUNA NIRE LAGUNA  
BOST AXOLA!  
ASTOA GITARRA JOTZEN BAINO BALDARRAGO.

## 28. Abestia entzuten: “Festa giro”

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, Liburua, 37. or.*

*Ebaluazioa:*

Hizkuntza:	• <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ahozko adierazpena</i>
	• <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>15 (15.1)</i>

Hasteko, CDa jarriko dugu abestia entzunez ikasleak haren letraz edo mezuaz jabe daitezen. Ondoren, “zeri buruzkoa da abestia?” galdera luzatu, eta, taldean, horri buruz mintzatuko gara.

Gero, abestiaren letra emango diegu ikasleei, eta, hura irakurri ondoren, bertan adierazitakoaren irudia egiteko esango diegu. Abestia buruz ikasiko dugu, behar beste aldiz entzun eta abestuaz.

### **Festa giro**

Uda garaian egutegiko  
deialdiak ikusita,  
zenbat auzo ta herri politi  
egin diogun bixita,  
bertsotan edo soinu kantuan  
udaberrian hasita,  
festa giroan joaten gara  
Euskadin alde guztita.

Festa giro, festa giro,  
zuekin gaude berriro,  
egin festa, egin festa,  
aupa mutil, aupa neska.

Gipuzkoatik Bizkai(a), Araba  
edo Naparro partean,  
Iparraldeko herrixkaren bat  
tokatzen zaigu tartean.  
Orduak aisa pasatzen dira  
festazaleen artean,  
nahiz eta gauzak asko aldatu  
joan den hogeit bat urtean.

*Festa giro, festa giro...*

Orain txostenetan dabil jendea,  
(e)ta plazak berriz arindu  
gure garaira itzul ditezen  
ezingo zaie agindu,  
bakoitzak daki bere gorputza  
zer konpasetan astindu,  
entzuten jarrai diezagutela,  
edo gureak egin du.



*Festa giro, festa giro...*

Giza bizitzak garai denetan  
izango zitu(e)n mudantzak  
lehen eta orain denetik daude,  
larrosak eta arantzak.  
Neska-mutilak elkartutzeko  
lehen balio zuen dantzak  
orain ez dute erakarpenik  
fandangoak eta baltsak.

*Festa giro, festa giro...*

## **29. DVD aitzakia. San Joan.**

*Lan egiteko era: Bakarka - Talde handian*

*Materiala: DVDA; Liburua, 36. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li><li>• <i>Helburuak eta irizpideak</i></li></ul>	<i>Ahozkoaren ulermena</i> <i>1(1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 1.5)</i> <i>2(2.1, 2.2, 2.3)</i>
-------------------	---	--

Talde handian irakurri 36. orrialdeko jarduerak eta argitu zer den egin beharrekoa. Ondoren, behar adina denbora emango diegu ikasleei lehenengo jarduera osa dezaten, DVDA ikusi aurretik. Horren ostean, DVDA ikusiko dugu (edota *Virtuseko* baliabideak erabili). DVDA behin baino gehiagotan jarriko dugu; lehenengoan, zertaz doan jabe daitezen, eta ondorengoak liburuko jarduera osatzeko beharrezkoak dituzten oharrak hartzeko. Jarduera bukatu ostean, talde handian elkarrizketa sortuko dugu DVDA ikusitakoaren inguruan hitz egiteaz ezezik, egindakoa berrikusi eta zuzentzeko.

Jarduera honen bidez, ikasleen ahozko ulermenari dagozkion irizpideei behatzeko aukera izango duzue. Litekeena da urtean zehar egindako hainbat jardueretan jasotako datuak izatea, eta horiek izango dira ebaluazioarako oinarriak; kontuan izan jarduera hau bat besterik ez dela, eta urtean zehar jasotako datuak izango direla, benetan, ikaslearen ahozkoaren ulermenaren inguruko informazio gehien emango digutenak.

**1. ATALA:** 1 minutu eta 42 segundo. (HASIERAKO IRUDIA: Arratsa, zerua ostarteekin, eguzkia mendien atzean gordetzen).

*Astiro-astiro hurbildu gara egutegi zaharrean Eguberriarekin batera memento garrantzitsuenera: udako solstiziora.*

*Gure arbasoek naturaren zikloaren arabera egiten zituzten beren jaiak eta bereziki bi solstizioak ospatu izan dituzte: negukoa, abenduaren 24ean, eta udakoa, ekainaren 24ean.*

*Udako solstizioak derrigorrez sortarazi behar izan ditu zenbait errito gertaera honek urtean zehar zuen esanahia ulertu zutenetik.*

(IRUDIETAN SAN JUAN SUA ETA JENDEA SALTO EGITEN AGERI DEN MARRAZKIA)

*Ekainaren 21a eta 24a bitarteko egunak dira urteko egunik luzeenak (Euskal Herrian): hamabost bat argi ordu. Egun horretatik aurrera argi orduak gutxitzen joango dira Gabonak arte.*

(PANTAILAN IDATZITA: “Abenduak 24”)

*Udako solstizioan ospatzen dena eguzki-aroaren, udararen etorrera da. Egun hauek Eguzki jaunari eskaintzen zaizkio. Beranduago, eliza katolikoak Kristoren jaiotza neguko solstizioan jarri zuen bezala, San Joan Bautistarena jarri zuen herriak udan egiten zuen festan. Horrela ikuspegi biak nahastatu egin ziren eta eguzkiari ere Joan, Joanes, deitzen zioten.*

**2. ATALA:** 3 minutu eta 55 segundo. (IRUDIA: Itsas bazterra, eguzkia ortzemugan gordetzen.)

*Euskal Herrian eguzkiari izan zaion begirunea ekintza askotan nabaritzen da. Trikuharriak, hilobiak eta gorpuak ekialderantz begira daude, eguzkiari begira, beraz. Otoitz txikiak ere egiten zitzaizkion, gordetzen zenean batik bat: “Adios, amandre, bihar artio”; “Ekia, igorri zadak ederrago bat”; edo “Bihar artio, Joanes”, esaterako.*

*Eguzki-lorea izan da gure herrian eguzkiaren irudia: haren ordezkotzat hartu da. Eguzki-lorea etxeko atarian jartzen zuten Doniane egunean. Gaueko izakiak, sorginak, deabruak, lamiak... eguzkiaren irudi hori ikusten dutenean ez omen dira ausartzen sartzen. Ekaitz eta tximistetatik ere babesten du etxea.*

*Suaren, uraren eta landareen inguruan bildu daitezke udako solstizioa ospatzeko egiten diren erritoak.*

*Euskal Herri osoan hedatutako sineskera da Doniane goizean eguzkia dantzan sortzen dela ortzemugan. Zeanurin, esaterako, ortozik joaten ziren Gorbeiara eguzkia irteten ikusteko.*

*Baina ospakizun honetako sinbolo nagusia San Joan suak dira. Herriko enparantza, baserri, soro eta bide-gurutzeetan oraindik egiten dira. Atso nahiz agure, neskatxa nahiz mutil, su honen inguruan batu eta su gainetik hiru bat bider egiten zuten salto formula magikoak esanez.*

*“San Joan, San Joan berde,  
artoak eta gariak gorde,  
lapurrak eta sorginak erre.  
Biba San Joan berde!”*

(EMAKUME BATEN AHOTSA ENTZUTEN DA, BIZKAIA ALDEKO HIZKERAN ONDORENGOAK ESANEZ.)

*“San Juan bagileko  
denpora ederreko,  
artoak eta gariak kaxan gordetako,  
zapoak eta sugeak surtan erretako.  
Gora San Joan!”*

*Urdiainen neska gazteak dira suaren ondoan elkarri eskuak hartuta kantata berezi bat kantatu eta konjuruak botatzen dituztenak.*

(ONDORENGO KANTA ENTZUTEN DA, HASIERAN IRUDIETAKO NESKATXEN AHOTSEAN, SEGIDAN ALEX SARDUIREN BERTSIOAN ETA AMAITZEKO BERRIRO ERE NESKATXEK KANTATUA.)

*Egun bai egun honek San Juan dirudi.  
Ez da San Juan baina hala lonbra bedi.  
Goazen San Juanera gaur arratsean  
etorriko garela bihar goizean.*

*San Juango iturrian dago ura berde  
amurraitxo freskuak hantxe dirade.  
Lehenbiziko eskuak eta gero musua.  
San Juango iturriaren freskua!*

*Jesukristoren lehengusua da  
aita San Juan Bautista.  
Aingeruak dantzan dabilta,  
dabilta baina dabilta.  
San Juanen pozean dabilta!*

*Andra mutur maketsa  
aingeruak dantzan dabilta,  
dabilta baina dabilta.  
San Juanen pozean dabilta!*

*San Juan garagarrilean  
denbora galantean!  
Maizik eta garirik ez dagoenean etxean!*

(KANTA AMAITZEAN NESKEK ZERA OIHUKATZEN DUTE:)

*“Orain arte belar, hemendik aurrera gari!”*

*Garai batean su horretan erretzen ziren aurreko urteko San Joan sortatik geratzen zitzaizkien lore eta belarrak.*

*Su honen boterea izugarria da, ia denetarikoa eskatzen zaio: sarna uxatzea, sorginetatik babestea, uzta zaintzea, gaixotasunak sendatzea.*

### **30. Oporren inguruko eztabaida.**

*Lan egiteko era: Talde txikian - Talde handian*

*Materiala: Liburua, 37. or.*

*Ebaluazioa:*

<i>Hizkuntza:</i>	<ul style="list-style-type: none"><li><i>Gaitasun nagusia</i></li></ul>	<i>Ahozko adierazpena</i>
	<ul style="list-style-type: none"><li><i>Helburuak eta irizpideak</i></li></ul>	<i>3 ( 3.1, 3.2, 3.4, 3.5, 3.7, 3.8) 4 (4.1, 4.2, 4.3)</i>

Talde handian orrialde osoa irakurriko dugu jabetzeko zer den egitea proposatzen zaiguna hitz-errotaren gai honetan. Ondoren, hitz-errotaren prozedurari dagozkion urratsak taldean gogora ekarriko ditugu, eta arbelean idatzi. Gero, urratsak

jarraituz ikasleek gaiaren inguruan hausnartzeko denbora-tartea hartuko dute, oporrak hartzeko aukera bien artean egon daitezkeen alde txarren eta onen inguruan hausnartzuz, eta gai horri buruz euren iritzia osatuz. Azkenik, hitz-errota martxan jarriko dugu.

Urtean zehar elkarrizketa egoerei dagozkien irizpideen inguruan jasotako datuak oinarri dituzuela, azken hitz-errota honetan jasotakoekin kontrastatu, eta azken ebaluazioa egiteko aukera duzue jarduera honetan.

### 31. Ingelesa

*Kudeaketa mota: Bakarka - Talde handian*

*Materiala: Liburua, 38. or.*

Ikasleek, bakarka, eta liburuan eskatzen den bezala, euren opor idealak marraztuko dituzte. Gero, ikasle bakoitzak, ingeleseko irakaslearen laguntzaz marrazkia taldeari erakutsi, eta, ahoz, bertan marraztutakoa adieraziko dute.

### 32. Ipuina.

*Lan egiteko era: Talde handian - Bakarka*

*Materiala: Liburua, 39. or.*

*Ebaluazioa:*

Hizkuntza:	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Gaitasun nagusia</i></li> <li>• <i>Helburuak eta irizpideak</i></li> </ul>	<p><i>Idatziaren ulermena eta ekoizpena</i></p> <p><i>10 (10.1, 10.2, 10.3, 10.4)</i></p> <p><i>11(11.1, 11.2, 11.3, 11.4, 11.5, 11.6, 11.7)</i></p>
------------	--	--

Orrialde horretan (39.a) proposatzen zaizkien jarduerak irakurriko dituzte talde handian, egin behar dituzten lanaz jabe daitezzen. Orrialdean bi jarduera proposatzen zaizkizue: bata, ikasleek talde txikietan ipuinen ezaugarriei eta idazketa-prozesuari buruz ikasi dutena gogora ekartzea, eta informazio hori guztia liburuan datorren eskemaren arabera antolatzea, eta, bestea, ikasleek bakarka eskema horren arabera eta jasotako ideiak kontuan izanik, ipuina ekoiztea, berrikustea, azken bertsioaren idaztea eta edizio lana egitea.

Lehenengo jarduera hori egiten ari diren bitartean, ikasleei behatuz gero, testu idatziak taldean planifikatzeari dagokion irizpideari buruzko datuak jaso ahal izango dituzue.

Bigarren jardueran, ostera, ikasleek testu sinpleak sortzen ari diren bitartean, sortze-lan horrekin zerikusia duten irizpideei beha diezaiokizue.

### 33. Bertsoa abesten: Goza ditzagun merituak

*Kudeaketa mota: Bakarka - Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak, 141. or.; CDa, 32. pista.*

Ikasleei irakurgaietako bertsoa irakurtzeko tartetxoa eman ondoren, CDarekin batera abestuko eta gozatuko dugu. Nahi izanez gero, buruz ikas dezakete abestia.

### **34. Komikia. Agurra**

*Kudeaketa mota: Talde handian*

*Materiala: Liburua, 40. or.*

Talde handian unitateko azken orrialdea irakurri, eta oporrak hartu aurretiko azken lanak egingo ditugu, hau da, karpetan bildu behar dena bildu eta oparitu beharrekoari oparitu, eta bakoitzak bere gauzak eskuratu, eta etxera eraman beharrekoak eraman; gelako gauzak jaso, gela garbitu eta txukundu, atzetik datozen lagunak behar bezala aurki dezaten. Bukatzean, talde handian elkarriketa sortuko dugu elkarri agur esateko datorren ikas urtera arte.

**OPORRETAN DAGOENA BONBON,  
ETA EZ DAGOENA, HOR KONPON!  
IZAN ZORIONTSU, LAGUNOK!**

Txanelakideok

# Musikako lan-koaderno

## 7. unitate didaktikoa

### 7.1 SOINUEN BEREIZGARRIAK

*Kudeaketa mota: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 7.1. fitxa; jardueren CDa, 34. pista*

Pertsona bakoitzak bere berezitasunak ditu. Batzuk argalak dira, besteak txikiak, garaiak, lodiak, beltzaranak, ipurtandiak, lirainak, hanka-motzak, ederrak, etab.

Hotsekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Hotsak aztertzerakoan, lau bereizgarri hauekin egiten dugu topo: altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea.

ALTUERA. *Bibrazio-ugaritasuna* da hotsen altuera adierazten digun ezaugarria. Segundoko zenbat eta bibrazio gehiago sortu, orduan eta altuagoa edo agudoagoa izaten da hotsa. Eta alderantziz: zenbat eta bibrazio gutxiago, orduan eta grabeagoa izango da hotsa.

IRAUPENA. Hotsak duen *luzeran* nabaritzen da soinuaren iraupena. Horrela bereizten ditugu soinu luzeak eta soinu laburrak, eta gai gara kortxeak, beltzak, zuriak eta biribilak bereizteko, idazteko eta irakurtzeko.

INTENTSITATEA. Hotsak bere sorreran izaten duen *indarra* ez da beti berdina izaten. Bereizgarri hori da intentsitatea. Izan ere, intentsitateak adierazten du soinuaren ozentasuna: suabea ala fuertea den. Horrela jartzen da:  $ppp = oso\ suabea / p = suabea / f = fuertea / fff = oso\ fuertea$ .

TINBREA. Hori da soinuaren ezaugarri berezia. Izan ere, tinbrea dela bide hotsak eta musika-tresnak *bereizi egiten ditugu*.

CDan ariketa bat grabatu dugu. Lau musika-zati entzungo dira. Bakoitzean, hotsen bi bereizgarri aztertu behar dira: **altuera eta intentsitatea**. Bitakoren bat edo agian biak aldatu egingo dira. Horrela bada, gurutze bat eginez adierazi behar dugu.

Lehenengoan danbor-hotsa entzungo dugu. Musika-tresna hori perkusiozkoa da eta ez du tonu-aldaketarik eragiten; ondorioz, altuera aldatzeko ahalmenik ez du. Grabazioa entzuten badugu, konturatuko gara intentsitatearekin jolastu dugula, batzuetan besteetan baino ozenago jo baitugu.

Bigarren tresna pianoa da. Kasu horretan bi bereizgarriak aldatu ditugu. Nota ezberdinak jo ditugu eta gainera suabe eta forte.

Hirugarren tresna panderoa izan da eta laugarrena giza ahotsa. Kasu horretan bi bereizgarriekin jolas genezakeen, baina altuera bakarrik aldatu dugu. Norbaitek esan dezake abesti zati osoan ez dela intentsitate berdina mantentzen eta, seguru asko, arrazoi duela, baina ez da gure nahia izan intentsitatea aldatzea.

## 7.2 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

*Kudeaketa mota: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 7.2. fitxa; jardueren CDa, 35. pista*

### **Zorionak**

Nork ez du abesti hori ezagutzen?

Saiakera asko egin dira beste zorion-kanta batzuk sortzen eta hedatzen, baina oraindik ere gehien hori entzuten da, baita ingelesez kantatzen bada ere. Konturatuko zareteenez, kanta horrek izan dezakeen zailtasun bakarra FA sostenitua da.

Musika-hizkuntzako beste kontzeptu bat ekarri nahi izan dugu: **"Kalderoia"**.

Nota bat gure nahiera luzatzeko baimena eskaintzen digu. Eta halaxe egin dugu. *Zorionak* abestian, ikurraren azpian dagoen MI nota luzatu egin dugu.

## 7.3 KORTXEAERDIA

*Kudeaketa mota: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 7.3. fitxa*

Kortxea baten iraupen erdia duen zelula erritmikoa da delako kortxeaerdia. Kortxea batek duen denboran bi kortxeaerdi sar daitezke. Beltz batenean, berriz, lau. Jakina, orain arte ikusitakoen artean notarik biziena da, eta horrek zailtasunak ekarriko dizkigu notak irakurri eta interpretatzerakoan.

Beraz, gogoan izan "entrenamenduak". Lagungarri izango zaizkigu.

## 7.4 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

*Kudeaketa mota: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 7.4. fitxa; jardueren CDa, 36. pista*

### **Astoa ikusi nuen**

Urte asko izan arren, beti "modan" dagoen kantua da astoari gertatutako bitxikeriak kontatzen dizkigun hau. Garai bateko Zarauzko ikastolako bi irakaslek sortutako abestia da. Letra Joxan Ormazabalena da eta musika, berriz, Imanol Urbietarena.

Abesti horretan zerbait aipatzekotan, nola ez, kortxeaerdiak dauzkagu. Ea gure ikasleek zenbat aurkitzen dituzten.

“Entrenamenduak” egin ondoren, ohiko prozedurari jarraituko diogu abestia lantzerakoan:

- Erritmoa irakurri eta markatu
- Hitzak erritmikoki irakurri
- Solfeatu
- Abestu
- Txirula jo

## **7.5/7.6 MUSIKARIEN TXOKOA**

*Kudeaketa mota: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 7.5. eta 7.6. fitxak*

### ***Pan-en txirula***

Agian, PAN esan eta ogia etorriko zaigu burura, baina orain egingo dugun musika-tresnak zerikusirik ez du ogiarekin. Ez da ogiz eginiko txirula bat. Ez horixe.

Delako PAN nor den agertuko dugu lehenbizi:

Greziako mitologian, Arkadiako artzainen jainkoa zen. Hermes eta Driope ninfaren semea. Ugalkortasunaren jainkoa zen eta satiroen itxura zuen: adarduna zen, eta ahuntz kokotsa, sudur kakoa eta aker-hankak zituen. Pan-en inguruko mito guztiek maitasuna dute gaitzat. Lotura handia du Dionisos grekoarekin eta Fauno erromatarrekin, biak ere ugalkortasunaren jainko baitira.

PANen txirula haizezko musika-tresna da. Hainbat neurritako kanabera zatiekin egiten da eta horiek argizariz edo lokarriz elkarri lotzen dira, eta gehienetan, behealdean itxita egon ohi da. Goialdetik putz eginez jotzen da, eta kanabera bakoitzak nota desberdina ematen du. Diotenez, Pan jainkoak asmatu omen zuen. Neolito Aroan eta geroagoko kulturetan zabaldu zen, Melanesian eta Hego Ameriketako indiarren artean, batez ere.

Europar artzainen musika-tresna izan zen gehienbat eta hala iraun du Pirinioetan. Ekialde Urrunean tradizio handia izan du eta Mozart musikari ospetsuak “Flauta miragarria” operan erabili zuen.

Eta orain, goazen geure txirula egitera. Kanaberak lortzea zaila izango zaigunez, plastikozko hodiak erabiliko ditugu. Hala ere, norbait animatzen bada, proba dezala kanaberekin. Askoz ere soinu politagoa ateratzen du.



#### MATERIALA:

- Plastikozko hodia
- Koloretako zinta itsaskorra
- Kartoi mehe zuria
- Koloretako plastilina
- Margoak, *gometsak...*

#### NOLA EGIN?

- Moztu 4 zentimetro luzeko hodi zati bat.
- Egin beste 11 zati, bakoitza aurrekoa baino zentimetro bat luzeagoa.
- Erantsi hodi bakoitzari zinta itsaskorra punta batetik besteraino, espiralean.
- Jarri hodi guztiak ilaran, txikitik handira, eta lotu zinta itsaskorrarekin.
- Moztu kartoi mehe zuriko tira bat, apaindu eta itsatsi jarri berri dugun zinta itsaskorra tapatzeko moduan.
- Egin plastilinazko 12 bolatxo eta jarri hodi bakoitzari, barrenaldeko zuloa tapatuz, haizeak ihes egin ez dezan.

#### NOLA SORTU SOINUA?

Hartu eskuetan, urreratu ahora eta bota haizea. Ea nolako melodia politak sortzen dituzun.

## 7.7 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

*Kudeaketa mota: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 7.7. fitxa; jardueren CDa, 37. pista*

### ***Kattalin***

Ikasturte amaieran gaude eta abesti honetan aurten ikasi eta landutako zenbait alderdi bildu nahi izan ditugu: FA sostenitua, anakrusa, punttua eta kortxeaerdiak.

Gainera, melodia honetan, bikote berri bat ikusteko aukera dugu. Anakrusan bertan ikus genezake. Kortxea bikotea dirudi, baina lehenengo notak punttua du; beraz, luzatu egin beharko dugu, eta, ondorioz, berarekin doan notak laburragoa izan beharko du.

“Entrenamenduak” egin ondoren, ohiko prozedurari jarraituko diogu abestia lantzerakoan:

- Erritmoa irakurri eta markatu
- Hitzak erritmikoki irakurri
- Solfeatu
- Abestu
- Txirula jo


## LAN KOADERNOTIK APARTEKO KANTUA

*Kudeaketa mota: Talde handian*  
*Materiala: Jardueren CDa, 38 . pista*

### MILA BIDER EZ!

Musikaterapia.  
 Giro lasaian eta errelaxamenduan.

- **Melodiaren azpiegitura tonala:** Mi m
- **Erritmoaren urratsetan:**



Bai/ez.  
 Zalantza/balantza.  
 Duda-mudatan gaude.  
 Lepoko zainen onerako  
 eta barneko eztabaiden konponketarako.

#### Jarrera:

Honetan ere binaka.  
 Bat lurrean eserita eta bere burua gogo onez atze-  
 aldean belauniko dagoen lagunari eskainiz.  
 Ingurugiro atsegin eta patxadatsuan.

#### Ariketaren funtsa:

Lasaitu nahi dugunaren burua, tente eta esaneko da-  
 goena, lanak erritmoki eginez, ezkererantz, esku-  
 nerantz, ohizko ukiera gozoan.



Mi m La m Si 7 Mi m  
 1 Es - ku - biz, ez - ke - rrez, \_\_\_\_\_ ji - ra bat e - ma - nez. \_\_\_\_\_

Mi m La m Do M  
 8 \_\_\_\_\_ Ez du - zu, e - zer - rez \_\_\_\_\_ la - sai e - gon zai -

Si 7 Mi m La m Si 7  
 15 tez. \_\_\_\_\_ Es - ku - biz, ez - ke - rrez, \_\_\_\_\_ ji - ra bat

Si 7 Mi m Mi m La m  
 22 e - ma - nez. \_\_\_\_\_ Ez du - zu, e - zer - rez \_\_\_\_\_

Si 7 Mi m Mi m La m Si 7 Mi m  
 29 la - sai e - gon zai - tez. Ez, ez, ez, mi - la bi - der ez.

Mi m La m Do M Si 7 Mi m La m Si 7  
 36 Lehen ba - rrez o - rain ne - ga - rrez. Ez, ez, ez, mi - la bi - der

Mi m Do M Si 7 Mi m  
 43 ez. Sa - gu - xa - rra - re - kin ez - kon - du nahi ez.

### MILA BIDER EZ!

Eskubiz, ezkerrez,  
 jira bat emanez,  
 ez duzu ezerrez,  
 lasai egon zaitetz.  
 Ez, ez, ez,  
 mila bider ez.  
 Lehen barrez, orain negarrez.  
 Ez, ez, ez,  
 mila bider ez.  
 Saguxarrarekin ezkondu nahi ez.

